



### 3. ARLOA: BIZITZARAKO HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Erronka honetan biltzen dira lerroko kezkak: **Gazte kritiko, arduratsu, elkartasunezko eta baloreetan sentsibilizatuak**. Udalaren II. Gazte Plana hirian aurretiaz dauden sektorekako beste plan batzuekin egituratzerakoan gorpuztuko da erronka, honako gaiekin uztartzen baita Gazte Plana: osasun eremuko hezkuntza eta sentsibilizazioa, osasuna modu arduratsuan bizitzea zenbait gaitan (sexualitatea, psikologia-osasuna, elikadura, drogamenpekotasuna,...) iraunkortasuna eta mugikortasun iraungarria, berdintasuna, eta gatazken konponbide baketsua.

Lehen ahalegina esparru horietako batzuetako irizpideak zeharka lantzekoa izan behar da; izan ere, gaur egun sail bakoitza bere kasa ari da, zeina gazteriari buruzko bere ikuskeraren arabera eta, ondorioz, estrategia desberdinduen arabera. Hona lantaldeen helburuak:

- hartzaile bereberekin lan egiten duten sail eta zerbitzuen arteko ezagutza eta komunikazioa hobetzea,
- udal jarduera koherentziaz janztea,
- eta udal jardueraren baitan sinergiak piztea.

Lerro honek barne hartzen dituen ekintza guztien atzean baloreetako sentsibilizazioa dago (elkartasuna, erantzukizuna, iraunkortasuna, berdintasuna...), horixe baita "Bizitzarako hezkuntza" deitu dugunaren euskarria. Halaber, egoera gatazkatsuei aurre hartzeko eta kudeatzen jakiteko tresnak landuko dira, esaterako: bide hezkuntza, elkarbizitzarako hezkuntza, gatazken konponketa, etab.

Helburuak lortu asmoz, kontzeptuzko lau multzo handitan egituratu da lerroa:

**Informazioa**, gazteek hainbat eremutan dituzten alternatiba eta aukeren oinarritzko ezagutza gazteen eskura jartzea, ohitura osasuntsu eta osasungarriak sortu eta praktikan jarri aurretiko urrats gisa, informazio horrek prebentzio-izaera eta –gaitasuna baitu.

**Aholkularitza** eta laguntza arazo-egoera jakinen bat bizitzen ari diren pertsonentzat.

**Ohitura eta bizimoduak**. Gazteek balore jakin batzuk beren egunerokotasunean txerta ditzatela landu nahi dugu, esterako: berdintasuna, iraunkortasuna, osasuna, kirola, bide hezkuntza...

**Beste kontu batzuk**, aurreko guztia gauzatzen lagunduko digutenak: koordinazioa eta zeharkakotasuna (5. lerroarekin estu lotuta, han erronka horrek garrantzi handia baitauka).